

Eusebio Erkiagaren omenaldia: hondar hitz

HARITSCHELHAR, Jean

Euskaltzain emeritua. Literatura Ikerketako batzordeburua

Hemen mintzo naiz Literatura Ikerketako batzordeburu gisa. Alabaina, LIBek du antolatu goiz honetako ekintza Eusebio Erkiagaren omenaldia Deustuko Unibertsitateko Atrioan.

Lehenik nahi nuke eskertu Deustuko Unibertsitateko errektoreordea, Roberto San Salvador jauna, egin digun harreraren gatik, utzi duelakotz guretzat gela eder hau. Eskerrik beroenak doaz ere goiz honetako mintzalariei: EHUko Roberto Mielgo irakaslea, Ana Toledo euskaltzaina eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea, Igone Etxebarria euskaltzain urgazlea, Labayru ikastegikoa, bai eta ere Miren Agur Meabe idazlea hautatu dituelakotz Eusebio Erkiagaren idazkietan zenbait zati interesgarriak, erakutsiz zein zabala den haren literatura eremua.

Agurtu nahi dut ere lehenbiziko lerroan dagoen Eusebio Erkiagaren familia. Nihaurek ezagutu dut Eusebio, nahiz ez naizen maiz kurutzatu harekin. Egia erran, garai batean, hileroko biltzarrak egiten ziren Donostian, toki egoikia zelakotz denentzat, bainan, zuen lanaren gatik, ez zen usu agertzen.

Agurtzen ditut ere gela honetan bildu diren guziak Eusebio Erkiagaren oharatzeko, pozik ikusten dudalarik Deustuko Unibertsitateko ikasle andana bat haien artean.

Baliatzen naiz parada honetaz adierazteko zer den Literatura Ikerketako batzordearen lana. *Iker* Saileko bosgarren batzordea da eta kezkatzen da

bereziki irakaskuntzak, izan dadien bigarren mailakoa edo unibertsitatekoa, behar dituen tresnetaz. Duela lau urte, 2008an hain zuzen, kaleratu du *Literatura terminoen hiztegia* 800 orrialdeko liburu gotor bat bere 545 sarrerekin, bakoitzak daukalarik bere adiera eta euskal literaturan dituen adibide bat edo bertze. Hots, liburu edo hobeki erran hiztegi baliosa eta baliagarria, zerbitzari paregabekoa bai unibertsitateko irakasle eta ikasleentzat bereziki. Geroztik, bertze lan batetan sartua da LIB deritzan batzordea, euskal literaturaren antologia bat, lehen liburukiak biltzen dituela Erdi Aroko eta XVI. mendeko idazleak. Datorren urtean, 2013an beraz, argitaratuko da lehen liburuki hori.

Guk, euskaldunok, badakigu Euskal Herriak duen altxorrik nagusiena euskara dela, gure arbasoek sortua historiaurrean eta geroztik erabilia bere tokia zainduz, indoeuropar hizkuntzen kontra borrokatuz.

Bainan euskararen lorategia euskal literatura da, ahozkoa lehenik eta idatzia 1545ean hasiz, orduan Etxepare Eihalarreko eta Zaroko erretoreak aldarrikatzen zuela euskara jalgi zadien kanpora, plazara, mundura eta munduko hizkuntzen dantzara inprimatua zenez gero.

Hortakotz LIB batzordeak eginbidetzat dauka euskal literaturan agertu diren idazleen ohoratzea, kongresu batzuetan, hala nola Oihenart XVII. mendeko olerkari zuberotarra, Anton Abbadia Lore Jokoen sortzailea XIX. mendean, edo jardunaldietan; bizpahiru adibide ematekotan Elizanburu, Oxobi, Lafitte eta igaz Xaho Iparraldekoak eta berdin Hegoaldekoak Kardaberaz, Ubillos, Lizardi, Lauaxeta bai eta egungo Eusebio Erkiagaren oho-retan. Mintzaldi guziak agertu dira, kongresuenak *Iker* bilduman eta jardunaldienak *Euskera* Euskaltzaindiaren agerkarian.

Berriz ere eskerrak bihurtuz, bai mintzatu direnei eta bai ere entzule guziei, bukatutzat emaiten ditut Eusebio Erkiagari eskainitako jardunaldiak.